



FUNTSEZKO JARDUERAK

Funtsezko jarduerak gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzuak dira: karabana alokairua, txoferraren zerbitzua barne. Gure zerbitzua gazteei eta familiei eskainiko diegu, herriz herri dauden ekintzetara hurbilduz (jaiak, kontzertua, jardunaldi kulturalak...)

Horretara iristeko, hainbat oinarrizko jarduera egin beharko ditugu. Oinarrizko jarduera horietako batzuk honako hauek dira:

- Publizitatea eta marketina: panfletoak, webgunearen antolaketa, sare sozialen bidezko kanpainak...gingo ditugu gure bezeroen arreta bereganatzeko.



- Txoferrekin bilerak: oso garrantzitsua da txoferren hautaketa egokia izatea. Horretarako haien lan-esperientzia kontuan hartu beharreko faktore nagusi bat izango da. Bestalde, haien gidabaimena eta gidari lizentzia eguneratua izatea ezinbestekoa da.



- Enpresako bulegoko tramiteak.
- Karabanen eta autoen erosketak: Jarduera hau funtsezkoa da gure proiektua aurrera eramateko eta irabaziak lortzen hasteko ematen dugun zerbitzuaren truke. Hauek *leasing* enpresa baten bidez

Espero dugu dena gurpil gainean joatea



lortuko ditugu eta aurrerantzean, enpresaren egoera hobetuz gero, erosteko aukera izango dugu.

- Mailegua lortzea. Hasierako kostuen hesia gainditzeko, behar beharrezkoa izango dugu honakoa eskuratzea. Hainbat bankuen laguntza eskatuko dugu, haien interes-tasak alderatuz eta hobekien iruditzen zaiguna hautatuko dugu



Espero dugu dena gurpil gainean joatea